

Aretxagazeta

FELIS BELTRAN DE HEREDIA
ANDRA MARI 07 - 2 EZK
ARETXABALETA

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1999ko urriak 21 • 177. zka.



Hainbat gastronomia eta kulturek tril domekan

Iturririk iturri: Gorka Etxabe eta Tomas Madinabeitia ■ Iritzia: Iraia Aginagalde ■ Kirolak: Encarna Mendez

GURE PRODUKTUAK
ARETXABALETAN SALGAI:

LAISO C.B (Angelines)

IMANOL Harategia

IOSU Harategia

JON Harategia

GERTU

JAKION

JAKION S.L. • San Migel plaza, 4 etxabea • 20530 Leintz Gatzaga
• Gipuzkoa • Tel. 943 71 46 86 • Fax: 943 71 46 21



Lausitta TABERNA

Lehengo
Juliantxo
berriz zabalik!

*Pintxoetan
espezialitatea*

ORDUTEGIA:
Goizeko 10etatik
gaueko 10etara

Zatoz Lausittara!

Lausitta kalea, 4 20550 ARETXABALETA





Zer iruditzen zaizu Aretxabaletan folklore eta gastronomia erregionalen eguna ospatzea?

Juana Portalo

(Langilea)

Ondo iruditzen zait festa egi-tea, ikustera joaten naiz.

Ni neu, ordea, Badajozekoa izan arren ez nago talde erregio-nalean sarturik, ez naiz sekula animatu.



Gonzalo Egurza

(Langilea)

Niri festak asko gustatzen zaizkit, beraz ondo ikusten dut hau ere; txorizoak probatu, pulpoa jan...

Giro polita egoten da jende ugari biltzen da plaza inguruan.



Ramon Torres

(Langilea)

Ondo iruditzen zait edozein jai ospatzea.

Ni andaluziarra naiz baina ez nago inolako taldetan sar-tuta.



Eli Arenaza

(Langilea)

Ondo. Kultura bat ez da beste bat baino hobea, beraz, kultura guztiak ezagutu eta bat ere ez gutxiesten ondo iruditzen zait. Hori bai, kultura denak egon daitezela.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

e s k u t i t z a



Itoitzeko solidarioekiko elkartasun deialdia!

Itoitzeko presaren kableak moztu zituzten Itoitzeko Elkartasuna taldeko 8 kideen aurka agintariak errepresio justifikaezina eta larria bideratu dute. Bakoitzari lau urte eta hamar hilabeteko espetxe zigorra ezarrita, Auzitegi Gorenak azken epaia kaleratu du joan den irailaren 13an. Asko gara Solidarioen ekin-tzarekin guztiz bat etorri eta kondena bide-gabe hori bete ez dadin lortzeko berehala mugitu beharrean gaudela uste dugun per-sonak eta taldeak. Horregatik, elkartasuna adierazi nahi duten talde eta pertsona guz-tiengana heldu nahi dugu, Solidarioek paira-tzen duten egoera larri bezain bidegabeari erantzuna ematera animatu eta elkartasun ekimen zabalagoak batera antolatu nahiz protesta ekintzak koordinatzeko egingo den bilera baten berri emateko. Bilera hori urria-ren 30ean, larunbata, arratsaldeko 4retan,

Iruñeko Gaztetxean egingo da (San Agustin kalea, 17).

Solidarioen aurkako espetxe kondena onartezin hori bete ez dadin gure borondate trinkoena agertu eta berehala mugitu behar-rean gaude. Itoitzko basakeria gelditzeko halako sentsibilitatea eta konpromezu bizia erakutsi duten lagun hauekin batera, kableen mozketarekin eta urtegiaren aurkako borro-karekin bat egiten dugun jende guztia kon-denatu gaituzte.

Itoitzko Solidarioekiko Elkartasun taldeak

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943 79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Arantza Antxia, Bego Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Mirari Altube eta Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Rosa del Aguila, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Ordenantza fiskalen igoera eta Pausokaren auzia erabaki ziren ez-ohiko osoko bilkuran

Astelehen honetan egin zen ez-ohiko osoko bilkuran bi gai izan ziren aztergai. Batetik, ordenantza fiskalei dagokien igoera onartu zen. Aurtengorako aurrikusitako IPC-aren igoera %2,3 denez, ordenantza fiskalak ere %2,3 igoko dira. Beraz, Udalaren esku dauden tasa eta zerga guztiek honen arabera igoera izango dute.

Bestetik, Kurtzebarri eskolak Pausokaren auzian jarritako alegazioa izan zen aztergai. Udalak, Gizabidea Fundazioari, jabetza publikoko lur zati bat ematea aztertu zuen aurreko legealdiko osoko bilkura batean. Lur zati hau, Pausoka haurreskolako egoitza berria egiteko izango litzateke.


Orduan Kurtzebarri eskolak alegazioa aurkeztu zuen eta astelehenean alegazio hori aintzakotzat ez hartzea erabaki zen. Orain, jabetza publikoko luraren desafektazioa egingo da baina luraren lagapena egin aurretik Udalak, Gizabideaz

eta Hezkuntza Sailarekin egon nahi du, bideragarritasuna aztertzeko. Gizabidea Fundazioaz hitzarmena egiten denean lagapenaren kontua martxan jarriko da. Guzti honek, Pausokaren egoitza berriaren lanak atzeratu egingo ditu.

Iñaki Pierrugues, PSEko zinegotzia, bakarrik faltatu zen asteleheneko osoko bilkuran



Aretxabaletako kale izendegi berria



Aretxabaletako Udalak, herriko kale izendegi berria ateratzeko asmoa dauka. Herriari buruzko azkenengo informazioa eta plana 1997koa da. Garai hartan kaleratutako liburuskak, kale izendegiaz gain Aretxabaletako datu orokorrak, historia, festak, aisialdia eta kultur, kirol, hezkuntza eta baliabide sozialei buruzko informazioa ematen zuen.

Hemendik eta urte bukaerara bitartean aterako den hau, data zehatzik ez baitago, ez da liburuskaz izango, poltsikoan eramateko modukoa baizik. Alde batean, kale izendegia edo kaleetako plana agertuko da eta beste aldean, Aretxabaletari buruzko informazio orokorra, auzo guztiei buruzko informazio laburra eta herriko jaien inguruko azalpenak.



• Paraila espezialitatea

GOYARAN ERRETEGJA

Solohaundi-8 ARETXABALETA ☎ 943 79 68 57

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

IRIARTE

Umeen
denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 10 96

Oro auzoa ABC egunkarian aipagai

Orain aste batzuk, estatu mailan banatzen den ABC egunkarian Aretxabaleta aipatzen den eskutitza agertu zen. Madrilgo emakume batek idazten zuenez, ama, Aretxabaletako Oro auzoko baserri batean jaiotakoa du. 80. hamarkadan bisitan etorri ziren Orora eta Aretxabaleta inguruan beldurrez bizi garea ikusi omen zuten.

Eskutitza idazten duenaren abizenei begiratuta, batek baino gehiagok galdetuko du Serrano abizenik izan ote den Oron. Jesus Osinaga Oroko auzokideari galdetuta zerbait agitu digu.

Gaur egun hutsik dagoen San Juangoa baserrian Agiriarentarrak bizi izan ziren. Gerra

aurretik, bertako alaba Pilar Agiriano Arruena lantegira lanera etorritako Serrano batekin ezkondu zen. Bikote hau Madrilera joan zen bizitzera. Hauen alaba eskutitza idatzi duen Marta González Serranoren ama izan daiteke.

Martín de Benavent. Valencia.

País Vasco

Señor director: Hace más de sesenta años que mi madre nació en un caserío del barrio de Oro en Aretxabaleta, Guipúzcoa. Desde que era pequeña, me ha contado historias de su infancia en el País Vasco. Fue muy feliz. En los años 80, mis padres hicieron un viaje a aquellas tierras. Desde entonces, mi padre se negó a volver a un pueblo donde el miedo se había apoderado de sus moradores.

Mi madre nunca más ha vuelto a ver aquellos prados. Cada vez que por los medios de comunicación escucha noticias de su tierra, se le humedecen los ojos y llora en silencio. A mí me inunda la tristeza. -Marta González Serrano. Tres Cantos (Madrid).

Urkuluko bidea konponduko da

Datozen egunotan, Udaleko hiritzaintza sailak data konkreturik zehaztu ez badu ere, egoera eskasean dagoen Urkuluko bidearen zatia konponduko da. Bertan, zuloak estali nahi dira, legar eta harez osatutako "todo uno" deritzaienarekin baina ez da asfaltatuko. Koruetako auzotik Ugasteiko bideraino dagoen tartean, Udala egingo da kargu eta hemendik dikeraino dagoenaz, berriz, Gipuzkoako Ur Kontsortzioa. Asfaltatuta dagoen bide zatia dagoenetan utziko da. Momentuz Udalak aurrekontua eskatuko die hainbat enpresei, baina urtea bukatu baino lehen egingo dira lanak, aurtengo aurrekontuetan aurrikusita baitago.



Xabier Gorostiaga jesuita Gizabideak gonbidatuta bisitan

Azken asteotan, Guatemalan bizi den Xabier Gorostiaga jesuita bisitan da gure bailaran. Guatemalako Rafael Landibar Unibertsitateko ordezkaria eta ekonomia arloan aditua den apaiza, kooperatiben inguruko esperientzia ezagutzera etorri da.

Gizabidea Fundazioak, garapen-bidean diren herrialdeetan duen interesa ezagutarazi zion Xabier Gorostiagari.



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOLARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15
☎ 943 79 34 28 • Faxes: 943 79 34 28

Jose Mari
bodegoia

Eguneko menua

Nafarroa, 6
☎ 943 79 20 45
Aretxabaleta

Herriko
plazan

ARTANO

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Jesus Atxa atxabaltarra omendu zen Iruñean aurtengo Nafarroa Oinezen

Igandean Iruñean egin zen Nafarroa Oinezen Juan Zelaia eta Mikel Artxankoz gain, Jesus Atxa atxabaltarra omendu zen. Jesus, iaz, Euskaltzaindiak ohorezko bazkide izendatu zuen Iruñean ikastolen alde egindako lanagatik eta orain jaso duen omenaldi hau ere ildo beretik dator.

Beti ikastolen alde lanean

Jesus Atxa atxabaltarra izan arren, jende askok ez du ezagutzen. 14 urtekin alde egin zuen herritik kanpora ikastera eta geroztik, han eta hemen ibili da geratu gabe lanean.

1945. urtean Ameriketatik bueltan UDAREN sorreran parte hartu zuen, futbola eta mendizaletasunarekiko zuen grina asetu nahian. Baina 1960. urtean murgildu zen erabat euskal kultura eta ikastolen munduan, bizkaiko ikastolen alde lanean hasiz. Aretxabaletako ikastola sortu zenean ere ez zen urruti ibili, lehenengo pausoak ematen lagundu baitzion. 1970. urtean, berriz, Iruñeako San Fermin ikastolako zuzendari izendatu zuten eta geroztik Nafarroako ikastolaren alde ibili

da lanean.


Liburua argitaratu

Jesusek orain arte egindako lana eta ikastolen inguruan gertatutako guztia liburu batean jaso nahi izan du. "Historia txiki baten harian. Jaso ikastola" izenburupean ikastolen iragana gogoratzen du, etorkizunean lanean jarraitzeko asmoz.

Jesusen esanetan Jaso ikastolari laguntzeko egin den aurtengo Nafarroa Oinez zela eta bururatu zitzaion liburuxka idaztea. "Lehenengo ikastolen sorrera ere kontatu nahi izan dut, nondik nora hasi ziren ikusteko".

Omenaldiak poztu

Omenaldi honekin Nafarroako ikastolen alde egindako lana eskertu nahi zaio Jesusi. Omenaldiaz galdezterakoan, barne poza ematen diola adierazi zuen. "Lanean jarraitzeko indarra eta poza ematen du omenaldi batek". Gaur egun ere, ia laurogei urterekin, egunero joaten da Nafa-



Jesus Atxak Aretxabaletara etortzeko gogoz dago

rroko Ikastolen Elkartera lanera. "Ikastolen egoera asko sendotu da. Hala ere oraindik badituzte arazoak, batez ere antolakuntzari dagozkionak. Ikastola publikoa eta pribatuaren artean erdi bidea topatu beharko litzateke" dio Jesusek.

Aretxabaleta bihotzean izanda herriari bisitatxoa egiteko gogoagertarazi zigun. Nahi duenean etor dadila, gustora hartuko dugu-eta berriz ere gure artean.

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43

EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 943 79 23 43

San Migel erretegia

Apotza auzoa, 23
Eskoriatza • 943 71 48 71

HAURRAK

Umeendako moda

Lezama merkatal zentrua, 15
943 77 14 86 • ARETXABALETA



Aretxabaletako EPEH plataformak batzar nagusia

Aretxabaletako Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak batzar nagusia egingo du ostegun honetan. Urte hasieran sortu zen plataformak, euskal preso guztiak eta bereziki Kepa Urrea, Euskal Herrira ekartzea du helburu. Batzar nagusi honetan, sorreraz geroztik egindako ekintzak berrikusi eta baloratu nahi dira. Era berean, aurrerantzean egin daitezkeen ekintzen inguruko proposamenak ere jaso nahi lituzke.

Batzar nagusi honetara plataformaren sorrerari baietza eman zioten herriko hainbat talde eta elkarte daude deituak. Momentu honetan guztira 34 dira baina plataformako kideek, atek edozeinentzat zabalik dituztela adierazi dute beti.

Plataformaren sorrera

Iazko Gabonetan Udalak, euskal presoak Euskal Herrira lemapean, kontzentrazio isila antolatu zuen.

Ekintza honen ostean, Udaleko alderdi politikoen ordezkariak (PSE-koa izan ezik), Gestora eta Senideakeko kideekin elkartu ziren. Euskal presoaren arazoan herritarrek ere parte hartu beharko luketela ikusirik herriko talde eta elkartei egin zitzaien deialdia.

Geroztik, azkenengo zortzi hila betetan hainbat ekintza antolatu dute, manifestazioak, kontzentrazioak, hitzaldiak... Herritarrengandik, berriz, oso erantzun ona jaso dute beti. "Ideia eta pentsakera ezberdinetako jendea elkartu da antolatutako ekintzetan eta horrek asko pozten gaitu. Gai honetan zerbait lortzekotan herritar guztiok elkartuta izango da" dio Felis Beltran de Heredia plataformako kideak.

Mitxel Sarasketa berbetan

Plataformak antolatutako azken ekintza, Mitxel Sarasketa preso ohiaren hitzaldia izan zen pasa den astean. Mitxel, Sinn Féin taldeko kide batekin etorri zen eta euskal presoaren egoeraz gain, IRAko presoaren egoeraren berri ere eman zuten. Herritar ugari hurbildu zen udal txeko zaharrera eta galderak ere ez ziren faltatu.



Mitxel Sarasketa euskal preso ohiaren hitzaldia izan zen hizlari pasa den astean

Odolaren kanpaina

Arabako Odol Bankuak urtero legez udazkenean egin ohi duen odolaren kanpaina aurten ere burutu du, baita emaitzak atera ere. Aretxabaletan guztira 106 lagunek eman zuten odola eta horietatik 7 berriak izan ziren. Irailaren 20an, 53 lagun pasatu ziren odola eman nahian eta 49k eman zuten. Irailaren 27an, 48 lagun agertu arren 42k eman zuten eta urriaren 4an 38 pasatu eta 35 lagunek eman zuten. Arabako Odol Emaleen Elkar-teak eta Feliciano Martínez Aretxabaletako ordezkariak, eskerrak eman nahi dizkie Osasun Zentrura odola eman nahian etorritako guzteei.

Akordeoi Orkestra bigarren Italian

Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak urriaren 6tik 10era bitartean Italiako "Citta di Castelfidardo" lehiaketan parte hartu zuen. Urriaren 10ean, igandea, tokatu zitzaion parte hartzea eta "I" kategorian edo Orkestrentzako kategorian egin zuen. Kroaziako taldeak lehengo postua eskuratu zuen eta Aretxabaletakoa bigarrenaren geratu zen Ginebrako (Suitzako) taldearen aurretik. Atxabaltarren poza izugarria izan zen, iaz aurrea hartu zien Suitzako taldearen aurretik geratzea lortu zutelako.

IBARRA



Tabakoa eta ikasmateriala

ESTANKOA

Bizkaia, 3 Tfnoa: 943 79 23 77

REGIO

optika

Loramendi, 10

☎ 943 79 98 21



ANDRA MARI

Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3

☎ 943 79 29 26

Izozkitekiko-Gozotegia

IZOZKITEGI

Otalora, 11

Tfnoa: 943 79 93 58

ARETXABALETA

OPEL 




*Zazpi leku,
familiarra,
furgoneta bihurtzen azkarrena*

Garaje Talleres Norte, s.l. Zerbitzu ofiziala

Basabe poligonoa A-13 • 20550 ARETXABALETA • Tfnoa: 943 79 62 65/Fax: 943 77 16 20

Kalitateak mugarik ez.



ARGI-PLASTIC

leihoen fabrikazioa P.V.C, aluminio eta poliuretano
Zigorrola, 1 8. Pabilioaia
Tel.: 77 11 30
ARRASATE

Tomas Madinabeitia eta Gorka Etxabe

Nekazal zentsua eguneratzen

Honez gero baserriar batek baino gehiagok ezagutuko du bikote hau. Urrian hasi eta abendura bitartean gure bailarako baserri guztietatik pasatuko dira galderaz beteta. Baina inor ez dadila belhurtu, erantzunak ondo gordeta geratzen baitira.

-Zertan ari zarete?

- Baserriarrei inkestak egiten ari gara. Baserriko titularrari egindako galderen bitartez baserriko atal guztiak gaintetik begiratzen ditugu: baserria bera, animaliak, zelai eta basoak eta makinaria. Nork gestionatzen dituen baserria eta lurrak; ea orturik duten eta nolakoa, zer lantzen duten; abererik baduten zeintzuk eta zenbat; zenbat hektarea dituzten...

- Norentzako ari zarete lanean?


- INE, Instituto Nacional de Estadística, Espainia osoan ari da burutzen lan hau. Euskal Herrian, berriz, EUSTAT, Eusko Jaurlaritzako estatistika saila arduratzen da inkestok burutzeaz. Beraz, gu, EUSTATentzat ari gara lanean.

- Zein da lan honen helburua?

- Nekazal zentsu hau orain hamar urte ere burutu zen. Hamar urte hauetan nekazal mundua nola garatu den ikusi nahi da. Jasotako datuen emaitzak Europara bidaliko dira, han diru laguntzak nora bideratu jakin dezaten. Baserri bateko titularrari jende gazteak laguntzen badio, esaterako, baserriar horrek errazago jasoko ditu dirulaguntzak.

- Nora doaz jasotako datu guzti hauek?

- Lasai egon daitezke baserri-tarrak datu hauek ez baitoaz inora. Hemendik urte batzuetara liburu batean jasota ager daitezke baina bes-



“Baserri askotan sukalderraino sartu gara eta etxeko gaztaia, ogia eta txorizoa ere jan ditugu”

terik ez. Gainera emandako erantzun hauek guztiak erabat sekretuak dira, euren eta gure artean geratzen dira. Gu baserriarren hitzaz fidatzen gara eta inoz ez gara esandakoa frogatzera joango, nahiz eta astakeria bat esan. Baserri batean esaterako, orain hamar urte 32 hektarea zituztela geneukan adierazia eta orain 9 dituztela esan ziguten.

- Zenbat baserriatik pasatu

zarete?

- Hiru hilabeteko epea daukagu lana burutzeko. Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko baserri guztietatik pasatu behar gara. Momentuz Eskoriatzakoekin ari gara eta 80 baserri bisitatu ditugu. Guztira 750 inguru dira.

- Orain artean nolako harrera egin dizuete baserri-tarrek?

- Oso ona. Hasieran errezeloz begiratzen digute leku askotatik joaten zaizkielako inkestak egiten; katastrofik, Haziendatik, Foru Aldunditik,... Zertarako den azaldu ostean eta Haziendarako ez dela ikustean, oso ondo hartzen gaituzte. Baserri askotan sukalderraino sartu gara eta

etxeko gaztaia, ogia eta txorizoa ere jan ditugu.

- Bitxikeria asko ikusi al dituzue?


- Bai. Baserri batzuk oraindik mende hasieran bezalaxe daude barruan inolako konponketarik egin gabe. Bolibarko baserri batean lau-rogaitamar urtetik gorako bikote bat ortuan lanean aurkitu genuen eta burua argi zutela gainera biek.

- Zerk harritu zaituzte gehien?

- Egin diguten harrerak. Guk hotzagoa izango zela uste genuen, batez ere diru kontuekin sartzen garelako eta kontu horiek aipatzea ez zaio inori gustatzen.

- Lan honekin zerbait ikasten ari al zarete?

- Askok, baserrien izenetatik hasita behi motetaraino. Aretxabaletakoez gain bailarako beste herrietako auzo eta txoko guztiak bisitatu eta ezagutzeko aukera daukagu. Baserrietako familien jatorriaren berri ere izaten dugu.



Aretxabaletako E.H.E.

“Badago zer egiterik Aretxabaletan, hori dela eta potentzia gisa sortu dugu Aretxabaletan E.H.E.”

Oporrak aspalditxo pasa dira batzuentzat, beste batzuentzat, ordea, amaitzeaz daude, hortaz lehenago hala beranduago betiko martxari eutsi behar zaio. Ni neu ere beste batzuen artean Aretxabaletan sortu berria den Euskal Herriko Euskaraz (E.H.E) taldea indartzeko asmotan, idazkitxo hau Atxabaltar guztion etxeetara helduko delakoan zuzentzen natzaizue. Pasa diren San Migel jaietan, promozio gisa idazkitxo bat luzatu zitzaizuen jaio berri den talde honi buruz. Pentsatzen jarrita, jende askoren eskuetara iritsi zen bost lerroz osatutako informazioa. Hala ere, makina bat jendek ez du talde honen berri handirik izango, beraz, nire helburua ez da besterik informatzea baino.

Orain dela bost bat hilabete gauzatzen dira talde honen inguruko lehen mugimenduak. Jakin ezazue E.H.E. talde honen helburu nagusia, euskarak behin eta berriz sufritzen dituen eraso bortitz eta jasan ezinak gaitzestea dela. Atxabaltarrok jakin badakigu, leku asko eta askotan euskara hutsean mintzatuz ezin dela behar bezalako komunikazioa izan, beraz, egoera tamalgarri horrek pairatu ezean zerbait egin beharrean aurkitzen naiz Atxabaltar bezala. Ez duzue

uste horrela denik? Badago zer egiterik Aretxabaletan, hori dela eta potentzia gisa sortu dugu Aretxabaletan E.H.E. Pertsona batzuen laguntzaz taldeak aurrera jarraitu duen arren, honek ez du esan nahi lana mugatua dagoenik, beraz, nahi duenak badaki ateak zabalik dituela E.H.E. taldekide izateko. Badaude beste hamaika aukera edo zeregin kide izan ez arren, hots, urtean zehar egingo ditugun ekintzetan parte hartzea, alegia. Lotsa barik animatu zaitezte horietan parte hartzen zuendako aberasgarria izateaz gain geuretzat ere badelako.

Jakinaren gainean zaudete beraz, Aretxabaletan talde honek zeregin asko dituela. Neuri behintzat gogoia eta indarra ez zait falta aurrera jarraitzeko. Espero dut zuek ere gogoia ez duzuela oparitzeko. Jarrai dezagun beraz aurrera, lortuko dugu eta! Iristear dagoen momentu hori guztiok ospatuko dugulakoan, eskerrak eman nahi dizkizuet irakurtzen bi minutu pasa dituzuenoi. Aukerarik izan ez duzenok ordea izango duzue taldearen berri aurrerantzean. Euskara espainetan Aretxabaleta euskaldundu dezagun. AURRERA BOLIE!

Iraia Aginagalde

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 943 79 98 74
ARETXABALETAKO

*Bereziki: Harategia
Urdategia
Fruitategia*

**IMANOL
JANARI DENDA**

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

**Etxabe
harategia**

Durana 4
☎ 943 79 16 61

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA**

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 943 77 13 57

III. Gastronomía eta Folklore jaialdia



Igandean, herria, musika, dantza eta jaki usai-
nez beteko zaigu. Extremadurarren kantak, anda-
luziarren dantzak, Gaztela eta Leongoen txorizoak,
Errioxako ardoa eta gailegoen pulpoa. Euskal Her-
ria ere izango da ikusgai Aretxabaletako Lora-

mendi Dantza Taldearen eta Gatzagako Jakion
produktuen eskutik. Ez dakit eskualde ezber-
dinetako kulturak ezagutzerik lortuko dugun baina
hainbat ikuskizunez gozatu eta jaki goxoez tripa
betetzeko aukera izango dela, zalantzarik ez.

Datorren igandean, hilak 24,
KIUBek antolatuta Gastronomía eta Folklore jaialdia egingo da
herrian. Euskal Herriko hainbat
herritatik hurbilduko dira taldeak
euren jatorrizko eskualdetako
dantza, kantu eta jakiak atxabal-
tarroi erakusteko. Eguraldiak
laguntzen badu behintzat giro po-
lita sor daiteke plaza inguruan.

KIUB antolatzaile

Gastronomía eta Folklore
jaialdi hau KIUBek, Kontsumi-
tzailearen Informaziorako Udal
Bulegoak, antolatzen du. Aretxa-
baletan KIUBeko arduraduna

Martin Garai da. Martinek dioenez
lehenengo, San Migel eguneko
produktu biologikoen feria sortu
zen eta ondoren etorri zitzairen
egun hau antolatzeko burutazioa.

Orain lau bat urte, garai hartan
PSEko zinegotzia zen Lorenzo
Fernández eta Martin elkartu eta
KIUBek zer egin zezakeen pen-
tsatzen hasi ziren. Produktu
biologikozko feriak modan zeude-
nez horixe egitea erabaki zuten.
“Feria honen arrakasta ikusita ani-
malia eta guztiz osatutako feria
egitea ere buruan ibili genuen. Hau
ordea gehiegitxo izango zelakoan,
beste era bateko jaialdian jarri ge-

nuen gure begirada.”

Lehenengoa orain hiru urte

Eskualde ezberdinetako pro-
duktuen erakusketa izenarekin sor-
tu zen egun hau orain hiru urte.
Martinen esanetan ospakizun hau
ez zen helburu konkretu batekin
sortu. “Beste era bateko ospakizun
bat egin eta jendeak ondo pasa-
tzea, horixe nahi genuen. Orain ere
ez dauka beste helburu konkre-
turik.”

Lehenengo urte hartan Donos-
tiatik, Errioxa eta Galiziako tal-
deak etorri ziren eta Arrasatetik,
“Corazón de Encina” Extremadu-

rakoa eta "Al Andalus" Andaluziakoa. Euskal Herria, berriz, Aretxabaletako Loramendi Dantza Taldeak ordezkatu zuen.

Iaz ospatu zen bigarren jaialdian aurreko taldeez gain, Gaztela eta Leongo taldea ere topatu zuen Martinek Laudion. Euskal Herriari dagokionez Gatzagako Jakion etorri zen bertako produktuak erakusteko. Aurtengoa, iazkoaren berdintsua izango da talde berberak baitatoz.

Patxaran lehiaketa

Orain artean San Migeletan egin bada ere, aurten patxaran lehiaketa Gastronomía eta Folklore jaialdi barruan egingo da. Arrakasta haundiko lehiaketa da. Iaz 50-60 botila aurkeztu ziren. Herritarrek ostiralerako aurkeztu behar dute beren botila eta kanpokoek iganderako ekarrita nahikoa da. "Egun berean hainbeste patxaran probatzea astakeria da. Izugarrizko mozkorra harrapatuko lukete epaileek Horregatik atxabaltarrek, partehartzaile kopuru haundiena bertakoa baita, ostiralean ekarri behar dute euren patxarana. Hauen artetik hiru edo lau onenak aukeratu eta igandean erabakiko da zein den guztietan onena"

Arrakasta haundia

Orain arte egindako bi jaialdiek arrakasta haundia izan dute.

Partehartzaileak:

- | | |
|------------------------|---|
| • Extremadurakoa: | Corazón de Encina |
| • Andaluziakoa: | Al Andalus |
| • Gaztela eta Leongoa: | San Fernando |
| • Galiziakoa: | Casa de Galicia |
| • Errioxakoa: | Casa Rioja |
| • Euskal Herrikoa: | Loramendi Dantza Taldea
Jakion (produktuak)
Etxagibel (txakolina) |



Aurten ere abestuko dute "Corazón de Encina" taldeko extremadurarrak

Jendea, dantzak ikusi eta kantuek entzutera urreratzen bada ere, dastatzeko egoten diren jakiek izaten dute arrakastarik haundiena. Galiziako pulpoa eta ribeirua, Errioxako ardoa, Gaztela eta Leongo txorizoa, Andaluziako urdaiazpikoa eta "fino" ardoa, Extre-

madurako migak eta Jakioneko mermeladak.

Jaialdi honek inguruko herrietan bizi diren beste eskualde batzuetako jende asko erakartzen du. Atxabaltarrei ere plaza inguruan jarritako postuetatik bueltatxo egitea gustatzen zaie. Jantzi koloretsu dotoreak astinduz burutzen dituzten dantzak ere benetan kuriosoak izaten dira. Aipatzekoak dira Galiziako etxetik datorren gaitero taldea, fama haundikoa, eta Errioxako etxeko jota abeslariak, profesionalak baitira. Beste kultura batzuen berri izan eta gozatzeko egun aproposa izan liteke igandekoa.

Kanpotarrak herrian


Bere garaian Espainiako hainbat eskualdetatik Aretxabaletara jende asko etorri zen. Lana izan zen arrazoi garrantzitsuenetakoa,



bakarra ez esatearren. Gaur egun gehientsuenak hemengoak sentitzen dira, batez ere seme-alabak atxabaltarrak direlako jadanik. Hala eta guztiz, euren herria eta batez ere ohiturak gogoratu eta bertako jakiak jateko irrika inork ezin die kendu.

Kanpotarren multzo haundiena Gaztela eta Leongoa da. Iazko datuen arabera 600etik gora dira bertakoak eta gehientsuenak gainera Zamoratik etorriak. Hurrengo taldea extremadurarena da, ia 350ekoa izanik. Ondoren galiziarrek eta andaluziarrek daude eta gutxiago errioxarrak.

Jendea munduko beste muturreraino joan ohi da jende ezberdina ikusi eta kulturak ezagutzera. Sarritan alboan daukaguna onartzea kosta egiten zaigu, gehienetan ezagutu ere egiten ez dugulako. Kulturen ezagutzak aberastu egiten du. Kulturen ezagutzak errespetua dakar. Gastronomian bakarrik geratu gabe saia gaitezen igandean kultura ezberdinetako ohiturak ezagutu eta hauekin gozaten merezi du-eta.



Feliciano Martínez
Aretxabaletan bizi den cordobarra
Al Andalus taldeko kidea

• **Zer iruditzen zaizu horrelako jaialdia egitea Aretxabaletan?**

• Oso ondo. Ni neu jaialdi honen bultzatzaileetarikoa bat izan nintzen. Arrasaten zerbait egiten zen eta Eskoriatzan ere bazegoen udazkeneko jaialdia, beraz, Aretxabaletan falta zen eta hortik sortu zitzaigun ideia. Kultura ezberdinen arteko topaketa hau oso positiboa iruditzen zait. Beste kultura batzuk ezagutu eta onartzea oso aberasgarria da.

• **Noiz sartu zinen Al Andalus taldean?**

• Hasiera hasieratik nago, sortzaileetako bat naiz.

• **Zer egiten duzue Al Andalusen?**

• Adin guztietako jendeak parte hartzen du eta hainbat talde daude dantza taldea, "García Lorca" antzerki taldea, "Alegría de la sierra" rozio taldea eta abesbatza. Aratusteetan Arrasaten egiten den "play-back" jaialdian ere parte hartzen dugu. Ni neu antzerki taldean nago sartuta.

• **Zer egingo duzue igandean Aretxabaletan?**

• Dantza erakustaldia egongo da. Andaluziako jakiak ere izango dira das-tagai urdaiazpikoa, arraina erreta, "fino" ardoa...

• **Beste herri batzuetara ere joaten al zarete?**

• Bai. Datorren astean Bergarara joango gara eta Donostian ere ospatzen da etxe erregionalen eguna. Santa Agedan ere urtero egiten da jaialdi bat beraz, leku askotara joaten gara.



Ikustekoak izango dira andaluziarren dantzak

Igandean ikusgai izango diren herrietatik Aretxabaletara etorritako bizilagun kopurua (1998ko datuak).

• Gaztela eta Leon	604
• Extremadura	342
• Galizia	126
• Andaluzia	93
• Errioxa	55

UDAKo Preferenteak kanpoan bai baina etxean ezin



UDAKo Preferenteak kanpoan irabazi arren, etxean ezin irabazi dabil. Etzeko bolada txar honekin apurtu beharko du taldeak animoak hartu eta era berean afizionatuak pozik uzteko

UDAKo lehen taldea etzeko partiduak ezin irabazi dabil. Iaz ez bezala, aurten kanpoan irabazi eta etxean galdu egin ditu azken bi partiduak. Joan den domekan Beti Gazte taldea hartu zuen UDAK etxean eta 1-3ko emaitzaz bukatu zen partidua. Jonan izan genuen UDAKo goleatzailea. Partidu honen ondoren, klasifikazioan 8. lekuan dago talde atxabaltarra 11 punturekin, lehen klasifikatuarengandik hiru puntutara. Ez da diferentzia handia baina etzeko bolada txar honekin apurtu beharko du taldeak animoak hartu eta era berean afizionatuak pozik uzteko. Datorren ihardunaldian kanpoan jokatu du Iñaki Ceciagaren taldeak, kasu

honetan Trintxerpe izango dute aurkaria.

Erregionalak eta jubenil mailako Euskal Ligak irabazi

Erregionalak eta jubenil mailako ALMEN-UDA Euskal Ligako taldeek kanpoan jokatu zuten eta baita irabazi ere. Daniel Armentiak zuzentzen duen lehen erregionalak 1-2ko garaipena lortu zuen Loiolakoren aurka. Datorren neurketan Gazteak taldea hartuko du erregionalak etxean.

Euskal ligako jubenilak 1-3 nagusitu ziren Loyolaren zelaian euren 4. ihardunaldian. Talde honek bikain hasi du liga eta bigarren postuari heldu diote klasifikazio orokorrean.

Futbitoa abian da dagoeneko

Joan den zapatuan hasiera eman zitzaion Arlutz futbito txapelketari. Hamar talde arituko dira elkarren aurka zapaturu-zapaturu Arlutz osteko kantxan. MCM, DDK, CPM, Taulerone, Ondanadas, Yugo, Garaje Tanis Mulas, Kemen, Peña Hugo eta El Escuadrón Diabólico ditugu futbitoan arituko diren aipatutako hamar taldeak. Momentuz zapatu arratsaldetan izango dira partiduak, bost aste bakoitzeko, horrela taldeek gainontzeko guztien aurka jokatu arte. Baina udazkeneko ordu aldaketarekin batera, zapatu goizetan ere jokatu dira neurketak. Beraz, aurten orain bi urte bezalatsu, udazken eta neguan ere izango da futbitoaz gozatzeko aukera zabala.

Squashean jokatzeko epea luzatu

Aste honetan hastekoa zen squash txapelketa baina azkenean arazo txiki batzuk izan direla eta, aste honetan oraindik ere apuntatzeko aukera izango da, hau da urriaren 22rarte. Orain artean zortzi pertsonak eman dute izena, erdiak inguru atxabaltarrak eta gainontzekoak kanpokoak.

BEIRALAN

- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiaik

KRISTALDEGIA Herriko plaza, 8 behea
☎ 943 79 81 78 ARETXABALETA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:

kutxa *gizarte-ekintza*

EzKUTU
TABERNA

Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tfnoa: 943 79 92 01

Ofindegia - Gozategia

Aretxabaleta
Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

Encarna Mendez

Yoga: arnasa, kontzentrazioa eta erlajazioa

Encarna Mendezek, gure herrian yoga irakaslea denak, hiru hitzetan definitu digu yoga: arnasa, kontzentrazioa eta erlajazioa. Ez da kirola, filosofia edo bizitzeko modu bat baizik. Bere jatorria Indian du, baina gaur egun mundu guztira zabaldua dago.

Encarna orain hamar urte hasi zen yoga klaseak ematen gure herrian. Bere ahotik bizitzeko filosofia honen inguruan gehiago jakin ahal izan dugu.

• **Nola definituko zenuke yoga?**

Yoga askok uste duten moduan ez da kirola. Alde batetik mugimenduak oso geldiak direlako eta bestetik ez dagoelako konpetiziorik. Yoga filosofia edo bizitzeko modu bat da. Beronek gorputzeko eta buruko osasuna mantentzea eta prebenitzea du helburu. Beste modu batean esanda, norbere burua eta gorputza ezagutzeko terapiatzat ere jo daiteke, horrela norbera onartu eta pozik sentitzen laguntzen du.

• **Non dauka bere jatorria?**

Indian. Bere sorrera data zehatza ez dakidan arren, Kristoren aurretik jadanik bazen. Indiatik mundura zabaldu zen maixuen bitartez. Indiarrek kalean bertan praktikatzan dute, norberarentzat egokienak diren posturak erabiliz.

• **Zu zeu noiz eta nola sartu zinen yogaren munduan?**

Hasierako ikastaro bat egin nuen Arrasaten, yoga elkarteko lehendakaria maixu nuela. Geroztik berarekin jarraitu dut lanean eta orain hamar urte Aretxabaletan ematen hasi nintzen.

• **Beraz, yoga elkarte bat ere badela aipatu duzu.**



“Arnasa hartzen ikasi eta erlajazioa bilatzen du jendeak yogan”

Bai, gainera datorren urtean 20. urteurrena beteko du. Elkarte honek yoga bailara honetara zabaldu du hainbat ikastaroren bitartez. Gaur egun inguruko herri gehienetan yoga klaseak ematen dira.

• **Yoga erlijioarekin erlazionatu izan da.**

Bai, baina ez du zertan loturarik egon behar. Yoga mota desberdinak daude eta badira batzuk beraien erlijioaren barruan yoga praktikatzan dutenak. Hemengoa “Jata yoga” deritzona da, eta ez du erlijioarekin zerikusirik. Gehienbat gorputza lantzen da baina baita burua ere.

• **Gaur egun zer bilatzen du jendeak yoga praktikatzerakoan?**

Bereziki arnasa hartzea eta erlaja-

zioa. Baina dena loturik dago, ezin baita alderdi bakar bat landu. Esaterako pertsona batek erlajatzea nahi badu, ondo arnastu behar du eta ondo arnasteko lasai egon behar du. Beraz, bata eta bestea elkarri loturik daude.

• **Nori zuzenduta dago?**

Edozein pertsonari egokitu dakioke yoga, bai gazteenei eta baita nagusienei ere.

• **Gero eta konpetitiboagoa eta stress gehiagoa dagoen gizarte honetan, badirudi yoga hortik irteteko bide bat dela.**

Bai, baina egia esan, yogak ez du jende asko erakartzen. Gaur egun kanpoko itxurari begiratzen zaio gehiago barruari baino. Yogak norbere burua onartzen laguntzen du, hobeto sentitzen, erlajatzen... eta badirudi bizitzeko modu hau ez dela jende asko erakartzen duen horietakoa. Dena dela, orain artean lokal arazoak ere izan ditugu eta orain Lezama merkatal zentruan zabalduko dugu lokal berria. Honek agian jende kopurua igo egingo du.

• **Nolakoa da yogako klase bat?**

Ordu eta erdi irauten du. Bost minutuko erlajazioaz hasten da. Gero arnasa lantzen da, ariketa batzuk egi-ten dira eta hoge minutuko erlajazio batez amaitzen da.

• **Baina klaseetan praktikatzea bakarrik, nahikoa da?**

Idealena klaseetatik kanpo ere jarraitzea izango litzateke. Ikasle gehienek, hala ere, klasean bakarrik egi-ten dute. Dena dela, egoera konkretuen aurrean erabili izan dute, adibidez, operazio edo examen baten aurretik...

• **Eta zuretzat zer da yoga lanbidea ala bizitzeko modu bat?**

Biak direla esango nuke.

Batutako perretxikoekin zer egin?

Udaberrian susak eta udazkenean onddoak. Garai batean onddoak inork ez zituen nahi izaten, jendeak ostikoka apurtu ere egiten zituela diote. Gaur ordea, ondo estimatutako jakia da. Aurtengoa ez omen da udazken oparoa, baina onddo pilotxoak batzea lortzen duenarentzat hona hemen Taberna Berri Jatetxeko sukaldariak emandako bi errezeta .

Onddo entsalada

Osagaiak:

- Loloa (barazkia)
- Trebisoa
- Haritz ostoa (letxugaren hantzekoa)
- Tomate txikiak
- Onddoak lamina finak eginda
- Limoia
- Olioia, gatza eta ozpina

Prestaketa:

Barazki guztiak taldetan banatuta plater batean jarri. Olio, limoi, ozpin eta gatzaz olio-ozpina egin. Ordu erdiz onddo laminak beratzen eduki.

Mahaira ateratzeko orduan onddoak barazkien inguruan jarri eta olio-ozpinarekin gozatu.



Legatz solomoa onddoz egindako saltsan

2 pertsonendako osagaiak:

- Legatz solomoa
- 4 otarrainska
- 3 onddo pertsonako
- 2 porru, tipula, berakatza eta perrexila
- Kopa bat brandi eta ardo zuria
- Olioia eta gatza

Prestaketa:

Legatz solomoa, koloretxoa hartu arte plantxan egin. Otarrainskak eta onddoak salteatu berakatz eta ardo zuriarekin. Azken hauek solomo gainean jarri eta 4 minutuz laban sartu.

Saltsa egiteko, tipula eta porrua sueztiitu eta hauei onddoak bota eta eginda daudenean brandiarekin garreztatu. Ondoren ur apur bat bota eta 15 minutuz irakiten utzi. Bukatzeko dena birrindu.

Mahaira ateratzeko orduan platerrean saltsa jarri eta gainean legatz solomoa perrexil apur bat gainera botata.

AZKARATE
AROSZTEGIA

Tailerra: Mahasterreka, 18
BERGARA
943 76 47 19

ARETXABALETA
943 77 01 24

T
X
i
L
A
R
R
A

ELIKADURA
BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 943 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 943 79 44 28
ARETXABALETA

“ A R I N S A ”

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa “EO-10”
Tfnoa: 943 79 62 80
ARETXABALETA

AMETS
TABERNA

Iparagirre, 4
Tfnoa: 943 79 01 29
Aretxabaleta

BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tfnoa: 943 79 91 84
Aretxabaleta



Mende hasierako eskola umeak

aurkoan benetan erretratu zaharra aurkitu dugu. Mende hasierakoa omen da, 1923 ingurukoa. Mutiko hauek asko gerra garaian hil ziren eta beste batzuk oraintsuago, baina batek baino gehiagok ezagutuko du bertan aita, osaba edo aitaita. 5 eta 14 urte bitarteko mutikoak dira hain dotore jantzi direnak erretratua ateratzeko. 14 urtekoak gainera gutxi, gehientsuenak 12rekin lanean hasi behar izaten zirelako. Ez zuen meritu makala Don Santiago Ondarra maisuak denei batera zerbait erakutsi ahal izateko. Bere sistema nagusienek gazteenei erakustea omen zen, ez da burutazio txarra.

Goiko lerroan eta ezkerretik eskumara: **Agustin Etxebarria, Seberiano Zubizarreta, Garay, Jacinto Zubizarreta, Juanito (Mikeletearena), Lorentxo Bernal, Pedro Galdos, Enrique Gastañaga, Alejandro Arcauz, Eusebio Otero, Jesus Peña.**


Bigarren lerroan: **Felipe Uriarte, Jose Olabe, Lucio Oteiza, Juanito Peña, Vicente Arce, Santiago Ondarra (irakaslea), Tomas Ondarra, Jose Antonio Usandizaga, Jose Mari Elkoro, Pepe Zauquillo, Valentin Jauregui.**

Hirugarren lerroan: **Angel Gabilondo, Pedro Zubizarreta, Bonifacio Alberdi, Prudencio Garay, Andres Jauregui, ?, Jose Peña, Hipolito Uriarte, Ricardo Galdos, Pedro Jose Garcia-Echave, Jose Mari Lonbide, Antonio Ochoa, Agustin Ondarra, Satur Zauquillo.**

Laugarren lerroan: **Jesus Alberdi, Felix Azkarretazabal, Juan Luis Izaguirre, Joaquin Rodriguez, Juan Jose Galdos, Jesus Errasti.**

Argazkia: Ramon Elkoro

Informazioa: Ramon Elkoro eta Lucio Oteiza



**Lurrindegia
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

**GARBITU S.
COOP.
Garbiketa
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 943 79 01 28

**Mobiliario
ARENAZA**

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07
ARETXABALETA

ITURGINTZA

J.J

Jose Jabier Irure

**URA, GASA ETA
KALEFAZIOA**

Tfnoa: 943 79 07 34
943 79 31 87

LANA

- ◆ **Zerbitzari** euskalduna behar da. Tfnoa: 945 44 50 86
- ◆ **Emakume bat behar** da goizetan bi orduz umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 943 79 33 19.
- ◆ **Emakume bat behar** da haurra zaintzeko. Tfnoa: 656 410 008 (gaueko 8ak eta 10ak bitartean deitu).
- ◆ **Emakume bat behar** da etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 656 410 008 (gaueko 8ak eta 10ak bitartean deitu).
- ◆ **Emakume bat behar** da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tfnoa: 943 79 37 03 (19:00etatik aurrera).
- ◆ **Neska** prest zapatu eta domeketan **lan egiteko**. Tfnoa: 943 79 03 37.

Langaiko lan eskaintza

- ◆ Deba Behean eta Durangaldean dauden enpresetarako **moldeen mantenimenduko 2 langile** behar dira. Erref: 24561/1
- ◆ Ibaizabalen dagoen bidaiarien errepide-garraioko enpresa batek **autobus mekanikaria** behar du. Erref: 24690/1
- ◆ Urretxun dagoen enpresarako **automozio mekanikaria** behar da. Erref: 24456/1
- ◆ Durangaldean dagoen enpresa batek **mantenimendu elektronikoko arduraduna** behar du. Erref: 24862/1



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura. Dohainik da.

DENETIK

- ◆ "Spaniel breton" arrazako 3 hilabeteko 2 txakur salgai. Tfnoa: 943 79 19 63.
- ◆ Garajea salgai Murubide auzoan, lehenengo solairuan. Tfnoa: 943 79 32 73.
- ◆ Volkswagen Comby furgoneta salgai. Guztiz ekipatuta. Tfnoa: 943 71 49 15, 21:00etatik aurrera.
- ◆ Datorren ikasturtean arratsaldez alemaneko klaseak emateko irakaslea behar da. Tfnoa: 943 79 00 69, 15:00etatik 18:00etara
- ◆ Txakurra eramateko remolke berri berria salgai. Deitu 943 77 05 75 telefonora.
- ◆ Kanpindenda kanadiensea eta kotxe gainean eramateko PVC-zko kaxa salgai. Tfnoa: 943 79 23 69.
- ◆ Urrezko zintzilikarioa galdu da. Inork aurkituko balu 943 77 17 42 telefonora deitu.

- ◆ Kawasaki GPC 400 salgai, egoera onean. Tfnoak: 943 73 18 72/73 12 82.
- ◆ Pastor Aleman txakurkumeak salgai. Pedigriarekin. Tfnoa: 943 85 32 44 edota 696057346.
- ◆ Gordetzeko lekua falta dela eta, "Chaman" piragua salgai. "Compartimento estanco"arekin eta txaleko berezia, pala, "cubrebañera" eta kotxean eramateko barrak prezio barruan. Prezioa 50.000 pta. Interesatuak deitu 943 77 01 74 telefonora.
- ◆ Ingeleseko klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Tfnoa: 943 79 78 35.

ETXE BIZITZA

- ◆ Lokal komertziala salgai edo alokagai dago Aretxabaletan, toki zentriko eta eguzkitsuan. Orain artean ileapaindegi eta edertze areto moduan funtzionatu du. Tfnoa: 943 77 12 70.
- ◆ Baserri zahar bat erosiko nuke berritzeko asmoz Deba Bailaran. Tfnoa: 649 67 19 14.
- ◆ 57 m²ko garajea salgai Errekabarren kalean. Tfnoa: 943 79 74 73.
- ◆ Etxe bat erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 649 16 86 69.
- ◆ Etxea erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 61 68.
- ◆ Etxea salgai Aretxabaletan. 72 m², zentrikoa eta berritua. Garajea aukeran. Tfnoa: 943 770227.

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA



FELIX
PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
☎ 943 77 00 33/79 42 56

Maritxu
Mertzzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 943 79 23 53
ARETXABALETA

MAITE
ileapaindegia

Sarasate, ☎ 943 79 59 05
ARETXABALETA

Sagardoari zukua ateratzen



Udazkena, hostoak jausi eta paisaia kolore dotorez janzten den urtaroa dugu. Baina ez hori bakarrik, sagardoa egiteko garaia ere bada. Horrela, Oron urtero moduan sagardoa egiteari ekin diote. **Geronimo Olaziregi**, bere senitarteko **Tomas Lasagabaster**, **Joxe Martin Larrinaga** eta **Jose Ramon Aranzabalen** laguntzaz ari da zeregin bitxi horretan. Aste honetan Iturralde baserrian jasotako sagarrak txikitu dituzte zuku guztia atera asmotan. Gero datorren urtean etxean bertan eginiko sagardo ederra dastatu ahal izango dute. Hori bai zortea.

Zorterik ez dakit izango zuten inguruko ehiztariek. Egunotan tiro hotsa nagusi izan da hemengo mendiotan baina hegoaldeko haizeak gehiago laguntzen ez badu, lapikoek hutsik geratu beharko dute momentuz behintzat. Perretxikotan

ere ez gabilta horren ondo. Azken egunotan egin duen euriak perretxiko gehiago ekartzen ez badigu... onddo tortila gutxi jango ditugu aurten, ze pena!

Onddotan ez dakit ona izango den **Miriam Urkia** baina bai euskara alorrean. UZEIko lantaldeak oraintxu atera duen euskarazko sinonimoen hiztegian aritu da. Euskarari zukua ateratzen badakiela erakutsi digu Miriamek ostera ere. Segi horrela hemendik aurrera ere, euskarak eskertuko du eta. Euskara gaitzat hartuta beste atxabaltar bat ere aipatu beharrean naiz, Jesus Atxa. Domekan Nafarroako ikastolen alde egindako lanagatik omendua izan zen Nafarroa oinez. Ondo merezitako omenaldia, jakina. **Jesus Atxak** gaztea zela alde egin behar izan zuen Atxabaltatik baina oraindik ere ondo gogoan du bere jaioterria, gaur egun Irunean bizi den arren.

Bueno esateko neukan guztia esan dudala uste dut. Zer gehiago esango dut ba... leihotik begiratu eta udazkeneko egun triste bat ageri dela. Kalera irten eta hormak kartezez beteta ikusten direla. Ah! bertan irakurri dut datorren domekan gastronomia eta kultura desberdinen eguna ospatuko dela herrian. Ribeiro, fino, pulpoa eta danetatik dastatzeko eta ikusteko aukera izango da egun horretan. Tripa bete eta eztarria buztitzeko egun aproposa, beraz. Bueltatxo bat egin beharko da.

Liburutegiko txokoa

LIBURU BERRIEN ZERRENDA

0 urtetik aurrera

- ¡Un lobo!/Alex Sanders
- ¡Papa!/Philippe Corentin
- Me gustan los libros/Anthony Browne

6 urtetik aurrera

- Adreilu lapurra/Fernando Aranburu
- El pes/Hanna Johansen

8 urtetik aurrera

- Pako belea/Iñaki zubeldia
- Pako belearen bihurrikeriak/Iñaki Zubeldia
- Oihan ttiki baina txukun batean/Karlos Linazasoro

10 urtetik aurrera

- Urrezko ibaiaren erregea/John Ruskin

12 urtetik aurrera

- Lukiako doktorea/Josep Gorriz
- Abraham/Juan Kruz Igerabide

14 urtetik aurrera

- Lepel jauna eta giltzaria/Wilkie Collins
- Bi ipuin harrigarri/Txema Garcia-Viana

Helduak

- El caballo que aprendió a volar/Cesar Vidal
- La boda del poeta/Antonio Skármeta
- Amsterdam/Ian McEwan
- Madera de boj/Camilo José Cela
- El atlas furtivo/Alfred Bosch
- El reino del año mil/Alvaro Bermejo
- Nuestra señora de la soledad/Marcela Serrano
- Luna lunera/Rosa Regás
- El último judío/Noah Gordon
- Puertas de fuego/Steven Pressfield
- Fuerteventura/Alberto Vázquez-Figueroa

Joseba Lopez de Armentia

URRIA

30

21

eguna

PLATAFORMAK BATZAR OROKORRA

Aretxabaletako Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak, bertan sartuta dauden talde guztiei batzar orokorrerako deialdia luzatu die. Udaletxeko ganbaran arratsaldeko 6,30etan izango da.

24


domeka

FOLKLORE ETA GASTRONOMIA JAIALDIA

Eskualde ezberdinetako dantza eta produktu erregionalen erakusketa. Goizeko pasakaile ostean plazan izango dira ikusgai dantzak, baita produktu erregionalak dastagai ere.

ELGEAKO ZENTRAL EOLIKOAREN KONTRA MANIFESTAZIOA

Goizeko 12etan Eskoriatzako plazatik atera eta Aretxabaletara izango da manifestazioa.



26

martizena

HITZALDIA KURTZEBARRI ESKOLAN

Amaia Vazquez psikologoaren eskutik hitzaldia izango da. Gaia "Garapen emozionalean jolasaren garrantzia". Arratsaldeko 6retan Kurtzebarri eskolan.

ELGEAKO ZENTRAL EOLIKOAREN KONTRA MENDI MARTXA

Goizeko 9,30etan Araotzetik irten da Elgeara mendi martxa antolatuta. Bai manifestazioa, bai mendi martxa Eskoriatzako Udaleko Ingurugiro Batzordeak, Gipuzkoako Mendizale Federakundeak, eta inguruetako herrietako ekologistek, mendizale elkarteek eta Gazte Asanbladak antolatu dituzte.


zapatua

AZAROA

astelehena

DOMU SANTU EGUNA

Kanposantura bisita egiteko eguna.



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 943 79 01 51

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:

Lyonel Arquero

Dekorazioa:

Soraya Arquero

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

Tfnoa: 943 79 88 95


MANTEKA ANAIK

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Angelines

AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42



943 71 20 02

ITURGINTZA

J.J

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA KALEFAZIOA

Tfnoa: 943 79 07 34

943 79 31 87

CONSUM EROSKI

Orain arrandegi eta okindegiaz, zatoz!

Mitarte kalea z/g 943 79 92 11

ARETXABALETA

ikastaroak

SALOIKO DANTZAK (TANGO, SALSA...)

Loramendi E.E.ko Tril emakume taldeak saloiko dantzen ikastaroa antolatu du. Klaseak asteazkenero izango dira Kurtzebarri eskolan arratsaldeko 7,30etatik 9etara. Maixua Natalio Maiztegi da. Apuntatu nahi izanez gero Loramendin egin daiteke 3.000 pta ordainduz.

ESKULAN IKASTAROA

Martizenetan izango da arratsaldeko 6etatik 8etara udaletxe zaharrean. Rosa del Aguila izango da irakaslea eta izena emateko Loramendi elkartera zuzendu. Prezioa: 3.000 pta.

BAINIKA IKASTAROA

Bainika ikastaroa urriaren 27an hasiko da eta asteazkenero emango da udaletxe zaharrean, 6etatik 8etara. Blanka Perek emango du. Izen ematea Loramendin egin daiteke, 3.000 pta ordainduz.



**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

Aretxabaleta

- Almen 943 71 49 07
- Aretxagazeta 943 79 86 21
- Basotxo 943 77 09 81
- Euskaltegia 943 79 21 68
- Gizarte-Laguntzailea 943 79 10 00
- Hezibide Elkarte 934 79 31 32
- Industrialdea 943 79 62 80
- Institutua 943 79 79 00
- Kiroletxea 943 79 64 61
- Kultur-Etxea 943 79 01 05
- Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
- Kurtzebarri B.H.I. 943 79 57 40
- Liburutegia 943 79 10 00
- Loramendi E.E. 943 77 09 70
- Ludoteka 943 79 05 81
- Murruxio M.E. 943 79 93 74
- Musika Eskola 943 79 36 50
- Ortzadar 943 79 01 84
- Osasun zentroa 943 79 74 58
- Otalora 943 71 24 06
- Parrokia (Bulegoa) 943 79 18 42
- Pausoka Haur-Esk. 943 77 03 77
- Postetxea 943 79 28 31
- Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
- Saretxo 943 71 26 56
- Taxi Geltokia 943 79 22 33
- Udal Bulegoak 943 79 10 00
- Udaltzaingoa 943 79 10 52
- Urats Gain 943 79 99 11

Udaltzaingoa

- Arrasate 943 79 14 39
- Bergara 943 77 91 06
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Oñati 943 78 04 11

Larrialdiak

- SOS Deiak 112
- Eskualde-Ospitalea (Arrasate) 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze-Gorria 943 76 55 76
- Larrialdiak 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

Garraioak

- Pesa 902 10 12 10
- Renfe (Gasteiz) 945 23 20 20
- Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15

Oroko sagardoaren zukua



Datorren eguakotxean Oron sagardoa nola egiten duten gertuagotik ezagutzeko aukera izango dugu Atxabalta ezagutzen programaren barruan. Prosezu bitxi bezain interesgarri hau nola egiten den Geronimo Olaziregi eta Joxe Martin Larriagaren eskutik ezagutuko dugu.

Besteak beste sagarrak nola txikitzen diren, ondoren sagarrari ura nola ateratzen zaion eta gure ezarrietan barrena sartu artean jarraitzen duen prozesua erakutsiko da.

Beraz, sagardoa egitearen sekretuak ezagutu nahi dituenak aukera ezin hobea izango du Atxabalta telebistak eguakotxean eskainiko digun saio horretan.

	MARTIZENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Agenda Argazki-zaharrak Kirolak	ALBISTEAK Agenda Eguraldia
20:30	ALBISTE ERREPIKAPENA	ATXABALTA EZAGUTZEN
21:00	ALBISTE ERREPIKAPENA	ALBISTE ERREPIKAPENA



Udal Euskaltegiko zuzendaria da Karmele Agirregabiria. Lau urte egin ditu zuzendaritzan baina irakasle lanetan 86-87 ikasturtean hasi zen. Hamairu urte luzetako ibilbide honetan ikasle asko pasatu da Karmeleren klaseetatik euskara ikasi edo hobetu nahian.

• Zer suposatzen du Udal Euskaltegiko zuzendari izateak?

Burokrazia lana da gehienbat, lana suposatzen du baina euskaltegi txikia denez, ondo moldatzen naiz.

• Burukomin asko ematen du?

Kurso hasieran dextente.

• Zuzendari ala irakasle gurago?

Irakasle, burukomin gutxiago ematen duelako.

• Nola banatzen da euskaltegiko ikasleagoa?

Alde batetik, euskalduntzea dago, alfabetatzea bestetik eta, enpresetatik datorren langilegoa azkenik.

• Enpresak euskalduntzea aipatu duzu.

Bai, indarrean dagoen arloa da, gero eta enpresa gehiago sartu dira langilegoa euskalduntzeko proiektuan. Gure etorkizuna hor egongo da.

• Euskara hasi berriei ala dakitenei erakustea nahiago duzu?

Dakitenei. Oso nekagarria da lehen urratseko ikasleei klaseak ematea.

• Bizkaiera ala gipuzkera zer gurago?

Etxekoa.

• Euskaraz gain beste zein hizkuntza dakizu?

Erdara.

• Eskoriatzan jaio eta Bergaran bizi.

Bergarako Ubera auzoan bizi naiz. Gizona bertakoa da eta bertan egin genuen etxea.

• Kalea ala auzoa nahiago duzu?

Bakoitzak bere abantaila eta desabantailak ditu. Uberan lasaitasuna dago beste bizi kalitate bat, baina denbora guztian

kotxea behar duzu.

• Aretxabaleta, Bergara eta Eskoriatza. Zer ematen dizu bakoitzak?

Aretxabaletak lana eta lagunak, Bergarak bizitzeko lekua eta Eskoriatzak dena ematen dit, eskoriatzarra naiz eta.

• Herri bakoitzetik zer hartuko zenuke?

Bergaratik giroa, Aretxabaletatik lagunak eta Eskoriatzatik familia.

• Bi alaben ama zara.

Bai, Maddi eta Amaia.

• Zenbat urte dituzte?

Maddi bizieta da eta datorren urteko otsailaren 29an lau urte beteko ditu, edo urtebete. Amaiak urtebete egingo du abenduan.

• Afizioak?

Irakurtzea.

• Irakurri zer?

Danetik, erdaraz nobela historikoak irakurtzea gustatzen zait.

• Momentu honetan zer irakurtzen ari zara?

“Las cenizas de Angela” berrirakurtzen ari naiz, aspaldian gehien gustatu zaidan liburua da.

• Historiako pasarte bat?

Judutarrek Espainian egindako garaia edo Ingalaterrako erdi aroa.

KOMIKIA

BALITXAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arriobe

Aretxagazeta



Gozatu udaz urte osoan zehar



NaturGas

 **902 123 456**
NaturGas, Euskadiko gasa



Sociedad de Gas
de Euskadi, s.a.

Grupo EVE

ETXE MOBEL

MUEBLES



ALTZARIAK




BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 943 79 41 82

ARRASATE

GRUPO **RK AUZ**

FAGOR 

ALTZARIAK

SUKALDE INTEGRALA



Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Mitarte 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABALETA